


TXORTA KAIOLAN

SORNE UNZUETA «UTARSUS»



Gure literatura tradizionotik harturiko lantxoren bat beti kokatu ohi dogu, aldizkari honen sarreran. Oraingoan Sorne Unzueta «Utarsus» andereak *Euzkerea* aldizkarian ixuri eban ipuintxo bat hautatu dogu: «Txoria kaiolan» izenekoa. *Euzkerea*-ren 30. zenbakian argitaratu zan, 1931.eko Bagilaren 15ean.

Grafia aldetik bakarrik gaurkotu dogu, gerra aurretiko idazleen idazkera hori gaurko irakurlearentzat gaxtegi gertatzen dalakoan. Ganerakoan, idatzitako modu-moduan dakargu lana.

Goiz atan itxi eban lenengoz abia.

Egaizkada labur-zakartxu bat egin da, bere abia dingilizka egoan zuzat adar baten jarri zan.

Amea eltxoak arrapatzen urtenda ikusten eban an, urrun, mendiak eta ortziak alkar mosu emoten daben lekuan.

Bera izan zan anditxua. Arrezkero lumatuta be baegoan. Laster jakingo eban bere burua elikatuteko janaria billatzen... Eta orduan berak bai egaizkadak!

Loraz estalduriko lats ertzeraiño jatsita, ur garden garbian sartu ta igeri, ta gero lumatxuak arrotu eguzkitan. Zugatz-buru ganera barriro igon eta andik mendiak baiño arago egaiz.

A! Egoak lumatuta eukiteak emoten dauan askatasun ederra! Berea da bizia, abien estutasuna itxita! Orretarra oldoztuten egoala, pozez txioka asi zan.

Bat-batez bere atzean zaratea susmau eban. Arantza begiratu ta une atan izugarrizko esku batek arrapautu, gora jaso eban txori gaixoori.

Esku arek berarizko toki baten sartu eban txoria, illuntxu egon zan, baiña bai epela ta biguna be. Mutillen kolkoan egoan.

Luzarotxu egon zan an, geldi-geldirik, arnasea artzeko be bildur zala.

Gaixoari betikotasuna iruditzen jakon astia.

Azkenez, arrapau eban eskutzar berberak kolkotik atarata, burdiñari lodidun espetxe baten aurrean imiñi eban. Atea zabaldu, eskuto arek txori gaixoari barrurantz eragin eta bere atzean atea itxi zan.

An bai eukazan janaria ta ura. Baiña zelako janaria! Etxakon berari bape atsegin. Eta atsegin izanda be ukuturik be ez eutson egingo.

Aren ituna! Larri egoan espetxe atan. Loroak zatitu ta andik iges egiteko egiten ebazan aletin guztiak alperrikoak izan ziran. Ezin, ezin ausi! Betiko galdu eban askatasuna! Agur betiko bere gurariak sortu ebazan amets zoragarriak!

Ez eban iñoz ortze-zear egaz egin-go, ezta loraz inguraturiko errekatik urik edango be.

Betiko espetxaldua... Iltea al balitz! Bizitz a baiño gurago eban eriotzea!

Berak ondo ezaguturiko txio bat entzunda, burua biziro jaso eban, ta

an bere ama maitea!

Berarentzako mokoak janariz betea ebala, abira bigurtu zan, baiña ez eban umea idoro. Tamalez beterik, asi zan umea billatzen, eta jopu bat eginda espetxeratua aurkitu eban.

Euren mokoak alkartuta, amak laztandu eban eta barriro joan zan egazka.

Laster bigurtu zan oster a be ta umeari mosu egiten doala, pikuen barruan janari bakana sartu eutson. Beste batzutan lez, etzan a eltxoa izan, bedar baten azia baiño.

Joan zan ama ta txori gaixoa kaiolako zotz baten ganean, sedazko kiri-kiñotxu baten antzez luma guztiak arrotuta lotu zan.

Biaramonean, txoria arrapau eban mutillak bera ikusten joan zanean, idoro eban kaiolako loroan, bere ankatxu gogortuaz gora, begiak itxita ta pikotxua erdi zabalik.

Ilda egoan.

Tamalez il zan?

Ez, maite-maiterik eban amak zitala emon eutson. Gurago eban semea iltea, jopua ikustea baiño. ■

